

Bideo Curriculumari (BideoCV) buruzko web orriak

<http://orientacion-laboral.infojobs.net/como-hacer-video-curriculum>

https://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=RhgHRtXfUIo

<http://www.javiermanzanegue.com/videocurriculum-guia-de-elaboracion-en-4-pasos/>

<http://yoriento.com/2013/04/guia-del-empleo-como-hacer-curriculum-internet.html/>

Bideo Curriculumama

Zer da BideoCVa?

BideoCVa lana bilatzen ari den pertsona baten bideo motz bat da, non autoaurkezpen bat egiten duen bere perfil profesionalari buruz: formazioa, konpetentzia, esperientzia eta helburu profesionalak aipatuz.

Zertarako da BideoCVa?

Lana bilatzeko prozesua hobetzeko baliabide bat da, irudia, ahotsa eta komunikatzeko-era bezalako aldagaiak kontuan hartzen dituelako. Enpresentzat hautagaien konpetentzia batzuk ebaluatzeko herraminta berri bat da (adibidez, ahozko hizkera edo hitz-jarioa). Beraz, ohiko CVaren osagarri on bat da, baina ez du berau ordezkatzen.

Zer ekarpen egiten du bideoCVak?

Zure hautagaitzari bideoCVak elementu bereizgarri bat gaineratzen dio, idatzizko cv-ak, perfil pertsonala formatu estandar batzuetan zehaztutako datuetara moldatzeak eragiten duen despertsonalizazioaren aurrean. BideoCVak informazio garrantzitsu asko eskaintzen du:

- Hautagaiaren komunikazio eta sintesi gaitasunak ageri uzten ditu.
- Hautagaia teknologi berriak erabiltzera ohituta dagoela adierazten du.
- Hizkuntzak menperatzen dituela agerian uzten du, horrela bada.
- Artista grafiko, abeslari, aktore, eta abarren lanak bisualizatzeko balio du.
- Kreatzeko gaitasuna martxan jartzeko egoerara bultzatzen du hautagaia.
- Informazio gehiago jasotzen da, komunikazio- eta hautaketa-prozesuak hobetuz.
- Enpresak hautagaiaren lehen irudi bat izatea ahalbidetzen du eta elkarrizketa burutzeko erabakia hartzen laguntzen du.

Nola egin BideoCV bat

* Gidoia prestatu

Zer kontatuko diozu kamerari? Prestatu gidoi bat CV baten egitura jarraituz, baina ez aipatu ez data ezta enpresei buruzko datu zehatzik.

Jarraian BideoCv bat egiteko puntu garrantzitsu batzuk aipatzen dira:

1. DATU PERTSONALAK:

- Izena
- Adina
- Bizitokia

2. IKASKETAK (zer eta non ikasi duzun)

3. FORMAZIO OSAGARRIA:

- Lanbide-ezagutzei balio erantsi bat emateko egindako ikastaroak
- Ezagutzak
- Hizkuntzak (titulu ofizialak, bekak,...)

- Informatika (erabiltzen dakizkizun programak)
4. LAN-ESPERIENTZIA:
- Bekak
 - Praktikak
 - Unibertsitate-ikasketekin bateragarriak izandako lanak
 - Lan kualifikatuak
5. EZAUGARRI PERTSONALAK:
- Norberaren izakerari buruz hitz egin daiteke tarte honetan, indargune eta ahulguneak, zein rol hartzen duzun talde-lanean aritzerakoan (adibidez, antolatzaile, bitartekari, pentsalari,...)
6. HELBURU PROFESIONALAK
- Karrera profesionala burutzea gustatuko litzazukeen sektoreak, interes profesionalak,...

Honako galdera hauek ere orientatuko zaituzte gidoia prestatzerakoan:

- Zer dakizu egiten?
- Zein gaitasun/konpetentzia dituzu?
- Nola frogatu ditzakezu?

Diskurtsoa eta grabaketa amaitzeko kontakturako datuak, telefonoa eta e-maila aipatu.

Zer esan nahi duzun argi daukazunean, garrantzitsua da **NOLA** esan nahi duzun pentsatzea. Hitzegiteko era zuzenak puntuak irabazi araziko dizkizu gainontzeko hautagaiekiko. Beste hizkuntzaren baten grabatu nahi baduzu zaindu esaerak eta ahozkerak zaindu. Aholkua da ez inprobisatzea. Hobe da naturalago egoten lagunduko digun hizketaldia prestatu eta ensaiatzea.

Zer hartu behar da kontutan?

Bideocurriculum sortzerakoan adi egon behar dugu. Herraminta honek aukera ona eskaintzen du ondo eginez gero nabarmentzeko. Baina egoki egin ezean, aukera zapuztu dezakegu.

Horregatik, kamera aurreko lanak hasi aurretik, kontuan hartzeko hainbat kontua aipatuko dizkizugu:

***Aurrez jakin beharrekoak**

- Gomendagarria da bideoa grabatzerakoan atzealdea ahalik eta neutroena izatea eta arreta desbieratu dezaketen elementurik ez egotea. Gainera, grabatzen den espazioa ondo argiztatua egon dadila.

- Arropari dagokionez, kolore bakarreko arropa janzteia gomendatzen da (berdea izan ezik). Marradun edota koadrodun arropa ekiditea ere komeni da arreta desbideratu eta irudia desitxuratzen dutelako.

***Ahozko eta gorputz hizkuntzaren inguruan**

1. Begiradari dagokionez, gomendagarria da kamara informazioaren hartzailearekin asimilatzea. Grabaketa denboraren %80a kamarari begira egingo da, bi pertsonen arteko elkarrizketa natural baten pare, baina segurtasuna eta interesa adieraziz.

2. Hizkuntzari dagokionez, hizkuntza formala erabiliko da, baina ohituta gauden hitzak erabiliz, diskurtsoak ez dezan fikziozkoa eman.

3. Jarrera beste faktore garrantzitsu bat da. Egokiena grabaketa aulki batean eserita egitea da, gorputzaren goialdea soilik erakutsiz eta posizio tente baina erlajatu bat mantentzen saiatuz. Kokatu kamera aulkitik zentzuzko distantzia batera, ez dadila ez oso gertu ez oso urrun egon.

4. Eskuekin ez dugu jakiten zer egin, baina azkenean beti zerbait egiten dute. Gomendagarria da eskuak ez gordetzea, kontrolatu ahal izateko posizio berean mantentzea eta noizbehinka mugimendu leunak eginez diskurtsoari laguntzea, mugimendu zakarrak ekidinez. Adibidez:

- Atzamarrak lotu (autoritatea eta zorrotasuna, baina baita akordiotara heltzeko borondatea eta izaera konstruktiboa adierazten ditu.)
- Esku-azpiak erakutsi (zintzotasuna eta argitasuna transmitituz)

Azkenik, gomendatuko dizugu ez hitzegiteko kontu pertsonalei buruz, ezta bizi duzun egoerei zorte kontuak egotzi; “zorte ona edo txarra” duzula esateak, zure ahalmenetan ez sinistea edo besteengan erantzunkizuna delegatzea esan nahi du, eta hori ez da enpresaren gustokoa izango. Termino positibotan hitz egin, puztu gabe, baina azpimarratu zure lorpenak eta ez falta zaizuna. Zure hitzek gogoia adierazi behar dute, eta are garrantzitsuagoa da zure aurpegia esaten ari zaren horrekin bat etortzea.

Nola grabatu bideoCva

BideoCva sortzeko bideokamera, mugikorra edo webcam bat erabili daiteke, barne-mikroa erabili daiteke edota giro-mikroa (kanpoko).

***Alderdi teknikoak**

- BideoCVak gehienez 2 minutuko iraupena izango du. Askoz jota 3 minutu.
- BideoCVaren kapazitatea ez da xx Megabytes baino handiagoa izango
- Bideoaren kalitatea onargarria izan behar da, formatu eta neurri egokia izan behar du webean argitaratu ahal izateko.

BideoCVaren edukia egiazkoa izan beharko da eta bere helburua lortzera bideratua.

Eta orain zer?

Pausu horiek guztiak jarraituz gero, zure bideoa gertu daukazu bidaltzeko.

- Zintzilikatu zure bideoa bideo-zerbitzari batean You-Tube edo zure gustuko bideoen ahokaleku batean.
- Ondoren lotura bidali Giza-baliabideetako arduradunei e-mailez.
- Ez ahaztu lotura hori zure ohiko idatzizko CVean gaineratzea.

Orain pentsatu eta saiatu bururatzen zaizun bideocurriculumik onena egiten, orijinaltasuna eta kalitatea elkarrekin joan daitezke. Zure aurkezpen hau sarean edukitzea enpresetan ezagutzera emateko modu desberdin eta berritzaile bat da.